



DSS2016.EU



## ARDORA LAN TALDEA:

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak  
zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

*Grupo de trabajo que decidirá las subvenciones de Olas de Energía, 2015*

2015-12-15

### ABENDUKO SAIOAREN MEMORIA

MEMORIA de la SESIÓN de DICIEMBRE

#### SAIOAREN HELBURUAK:

- ▶ **Azaroan jasotako proiektuen artean hausnarketa eta esleipen ariketa egin talde lanean.** Realizar la reflexión grupal y toma de decisiones en cuanto a los proyectos recibidos durante el mes de febrero.
- ▶ **Hautatuko proiektuen onarpena.** Aceptación de proyectos seleccionados.

#### PARTAIDEAK:

- **2016 BULEGOTIK:** Enara Garcia Partaidetza Zuzendaria; Mikel Goñi, Energia Olatuak programaren arduraduna.
- **ARDORA LAN TALDEA 2.016€:** 8 parte hartzaile; 5 gizonezko eta 3 emakumezko.
- **AZTIKER IKERGUNETIK:** Teknikari bideratzaileak: Markel Ormazabal eta Maitane Barrenetxea.



## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2016*

### **1. SARRERA ETA SAIOAREN KOKAPENA.** INTRODUCCION Y CONTEXTUALIZACION DE LA SESION

Gaurko saioaren aurretik, Ardora 3 lantaldeko kideek proiektuen aurretiko balorazioa bidali dute, eta balorazio horiek kontuan hartuta, gaurko saioan **14 proiekturen artean egingo da hautaketa lana.**


*Los y las participantes de Ardora 4 han realizado un trabajo previo de valoración de las propuestas, y partiendo de éstas hoy se trabajará sobre los 14 proyectos que mayor valoración cuantitativa han recibido.*

Jarraian, saioaren helburu eta Ardora lan taldearen funtzio zehatza den ariketa gogorarazida: Energia Olatuak programara 2015eko urtarrilean zehar aurkeztu diren proiektuen esleipena kategoria bakarraren arabera:

#### **-2.016€ko 5 proiektu**

*Para finalizar la presentación se ha recordado el objetivo de la reunión de hoy: realizar una selección entre los proyectos presentados durante diciembre en el programa Olas de Energía, concretamente:*

#### **-5 proyectos de 2.016€**



## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

## **2. HAUTAKETAK EGITEKO LAN DINAMIKAK**

---

### **2.016€ko diru-laguntzak esleitzeko prozesuaren emaitzak hauek izan dira:**

#### **Euskara, partekatzen duguna**

Euskaltzaleen Topaguneak, iraupen laburreko dokumentala sortuko du euskara eta aniztasunaren inguruan elkarteak egin duen hausnarketa zabaltzeko eta partekatzeko. Gaia jorratzeko Bagera elkartearen Auzoko egitasmoa eta bertako parte-hartzaileen bizipenak hartuko ditu oinarri. Herritarrek euskara erabili eta herri bizitzako komunikazio-tresna izateari eusten dioten heinean, bertaratutako edonork euskara ikasi eta erabiltzearen arrazoiak argiago ikusiko ditu.

*Euskaltzaleen Topagunea rodará un documental de corta duración que versará sobre el euskera y la diversidad para divulgar y compartir la reflexión que ha llevado a cabo. Para tratar el tema, tomará como base el proyecto Auzoko de asociación Bagera y las vivencias de las y los participantes. Mientras la ciudadanía use el euskera como herramienta comunicativa para el día a día, cualquier persona verá claramente las razones por las que merece aprender y usar el euskera.*

#### **Gipuzkoa 88**

Gipuzkoako 88 herriak bideo batean batzea eta, modu horretan, Europako Kultur Hiriburutza txoko guztietara eramatea du helburu Iñaki Goikoetxea Arrufatek proposatutako ekimen honek. Horretarako, 2-3 segundoko 88 zatitan banatuko den abesti bat aukeratuko du. Bideoa Donostian hasiko da, Hiriburutzako leku adierazgarri batean eta, 2-3 segundoren ostean, Gipuzkoako beste herri batera joango da.

*Iñaki Goikoetxea Arrufat propone unir los 88 pueblos de Gipuzkoa en un vídeo y llevar así la Capitalidad Europea de la Cultura a todos los rincones de la provincia. Para ello, elegirá una canción que se dividirá en 88 pequeñas partes de 2-3 segundos. El vídeo comenzará en San Sebastián en un lugar representativo de la Capitalidad y a los 2-3 segundos saltará a otro pueblo de Gipuzkoa.*

#### **Ohol gorria**

Eider Ibarrondo Garciaren proposamen honek hiriko gune arrunt bat espazio poetiko batean bilakatu nahi du, sorkuntza-ekintza berri baten motore izateko aukera bezala. Hiriaren erdian ohol gorri baten instalazioaren inguruan margoak eta pintzelak egongo dira, bertan nahi duenak margotzeko eta bere irudimenari askatasun osoa emateko. Emaitza pintura kolektibo bat izango da.

*Esta propuesta de Eider Ibarrondo Garcia consiste en convertir un lugar común de la ciudad en un espacio poético valiéndose de una actividad creativa como motor. Para ello, se instalará un caballete rojo en el centro de la ciudad, junto con pinturas y pinceles, para que quien quiera pueda pintar y dar rienda suelta a su imaginación. El resultado será una pintura colectiva.*

#### **La victoire estropada**

Hondarribiako Portuko erabiltzaileek osatzen duten AupHondarribia elkarteak belaontzi estropada bat proposatu du, bakarka zein bikoteka, Lafayettek 1777an Bordeletik Pasaiairaino egindako itsasketa gogora ekartzeko. Lafayette aldarrikatu nahi da ekimenean, bai askatasunaren defentsaren aitzindari gisa, bai giza eskubideen sustatzaile gisa, baita Pasaia eta Donostiarekin zuen lotura ere.

*La asociación de usuarios del Puerto de Hondarribia AupHondarribia propone una regata de veleros en modalidad de solitario y doble que recordará la navegación efectuada por Lafayette en 1777 desde Burdeos a Pasaia. La iniciativa constituirá una reivindicación de la figura de Lafayette como adalid de la defensa de la libertad e impulsor de los derechos del hombre y su relación con Pasaia y San Sebastián.*

## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

### **Argazkigintza kalera**

Tamaina handiko argazkiak autobus geltokiko markesinen sabaietan jartzeko ekimena. Gipuzkoako Argazkilari Elkarateak argazki zenitalak prestatuko ditu horretarako.

*Iniciativa para colocar fotografías de gran tamaño en el techo de las marquesinas de las paradas de autobús. La Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa se encargará de realizar fotografías cenitales expresamente para este proyecto.*

### **Hiru ordezeko proiektu ere hautatu behar izan dira gaurko saioan eta hauek dira aukeratutakoak:**

*En la sesión de hoy también hemos tenido que elegir tres proyectos de reserva, que son las que siguen:*

**1 ordezkoa: ATERKIART 635 KODEA.**

**2 ordezkoa: PASEOS FOTOGRAFICOS 672 KODEA.**

**3 ordezkoa: TAMBORRADA KULTURA 668 KODEA.**





## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2016*

### **3. BALORAZIOA:**

Arestian esan dugunez, gaurkoa ARDORA3 lan taldearen azken lan saioa izan da. Honenbestez, eta saioaren haseran Xabie Payaren bisita izan duten bezala, saioko bi ariketak amaitu ditugula, talde handian elkartu gara berriro ere eta bertan DSS.2016.EU-ko arduradunek esker-hitzak eta oroigarri bana zian dituzte parte hartzaileentzat.

*Al ser la ultima sesión del grupo de trabajo ARDORA3, y habiendo finalizado los dos ejercicios de la sesión, nos hemos juntado en un grupo donde los y las responsables del proyecto DSS.2016.EU han tenido palabras de agradecimiento para los y las participantes, a quienes se les ha obsequiado con recordatorio.*




Parte hartzaileek ere esker onez erantzun dute, eta izan diren hitz hartzeetan egindako lanaren esperientzia aberasgarria azpimarratu da. Baita aurrerantzean behar den lanetan jarraitzeko prestutasuna ere.

*Los y las participantes también han respondido con palabras de agradecimiento, y en las tomas de palabra, se ha subrayado que la experiencia ha sido enriquecedora. Así como la disposición de seguir trabajando si así se les requiere.*

Saioa amaitzeko, talde balorazioa egin da, hiru koloretako itsas argien bidez posizionatzea eskatu zaie partaideei eta hauxe izan da emaitza:

*Para finalizar la sesión, los y las participantes han realizado la valoración de grupo, y para ello han utilizado las faros de colores.*



	Saioa ez zait batera gustatu, ez dut ikasi, ez informazioa jaso. Metodologia ere ez zait oso egokia iruditu. Orokorrean sentrazio ezkorra dut.
	Besterik gabeko saioa izan da, informazioa jaso dut baina zalantza askorekin. Gehiegi ez dut ikasi eta metodologia besterik gabekoa izan da. Orokorrean sentrazio epela dut.
	Saioa egokia izan da, ikasi dut eta informazioa jaso dut. Metodologia egokia izan da eta sentrazio onarekin noa.

Hiru kategori horien arabera **parte hartzaile guztiek itsas argi berdea** hautatu du=



**Horrenbestez, bilera amaitutzat eman da iluntzeko 20'30ean.**

**Donostian, 2015ko abenduaren 15ean.**